



## BEZPERA BERRITUA

Helduen danborradak  
nobedade aipagarriak  
izango ditu aurten 24

## ESKAITZA BEREZIA

20 URTE INGURU IRAUNGO DUEN

ARROPA GARBIGAILUA, HILEAN 69,90 €\*

BAKARRIK ORDAINDUTA \*12 hilabetez



# Miele

ARROPA GARBIGAILUA  
EROSTEAGATIK MILAR  
KAMISETA TEKNIKOA ETA  
FORRU POLARRA OPARI



## URTE BERRI ON



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 124.a (2011ko urtarrila)  
**Urtea.** XIII.a (1999ko azaroan sortu)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 /  
 oalegria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilero  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** G. Otamendi  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarrria.com](http://www.uztarrria.com)

Uztarrria herri aldizkariaren  
 laguntzaileak (erakunde  
 publikoak)



Gipuzkoako  
 Foru Aldundia



**Uztarriak** Oharra. Uztarrria  
**Bai Euskarari** Komunikazio  
 Taldeak ez du bere gain hartzen  
 herri aldizkariaren adierazitako  
 esanen eta iritzien erantzukizunik



## ||| 2011KO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||



### iritzia

**Inkesta.** 2011. urteari zer eskatzen diozu? **13**

### mamia

**Miren Fernandez.** Lehen diskoa atera du: 'Laztanten nauen eskua' **04**  
**Klik!** Eguneroko ogia, goizean-goiz egina **16**  
**Hobi komuna.** Zein dago Urrestillakoan? **20**



### jakiteko

**Inaxita Arozena.** Ia 80 urte ile-apaintzaile lanetan, eta mila bizipen kontatzeko **34**  
**Urritz Iruretagoiena.** Ingelesa ikastera joan da Londresera, baina han ere lana egitea ahaztu gabe **37**

**Ba aL dakizu** gaztetxoek mailako futbol txapelketa garrantzitsua antolatzen nahian dabiltzala herrian? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian 943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxebarria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarriak liburuxka gehiago aterako ditu)

**1.022** bazkide **30** euro dira urtean.  
 gara dagoeneko Uztarrrian; 106.400 euroko aurrekontua  
 eskerririk asko denei. du Uztarriak 2009. urterako.

# MIREN FERNANDEZ

abeslaria

## “Jendearen aurrean biluztea dut helburu”

Duela gutxi, disko bat kaleratu du bakarlarri gisa: ‘Laztanten nauen eskua’. Emanaldia “oso intimista” dela adierazi du berak. ✍️ Xabier Otamendi

**H**endaian bizi den azpeitiar zarauztartua. Hala erantzuten du nongoa den galdetutakoan Miren Fernandez abeslariak.

### Azpeitian jaioa zara. Zer harreman duzu Azpeitiarekin?

Lau urtera arte egon nintzen Azpeitian. Gero, Valladolidera joan ginen, zortzi urtera arte, eta handik, Zarautzera. Egun, egia esan, gero eta gutxiago joaten naiz hara, baina, han daukat Familia. Hori bai, festetan, batez ere San Inazioetan, urtero joaten naiz.

### Nolatan hasi zinen abesten?

Txiki-txikitan hasi nintzen. Nire amak ere abesten zuen *Unai Hirukoa*-n. Musika oso presente izan dut familian. Amaren anai bat *Egan* taldeko bateria zen. Beste

osaba, berriz, Jose Luis Frantzesena Azpeitiko Bandako zuzendaria. Neu gogoratzen ez naizen arren, bi urterekin Loiola herri irratiari abestu nuen. Baina, kantatzen-kantatzen, zortzi urterekin Zarautz-txiki abesbatzan hasi nintzen. Gero, Zarauzko handien abesbatzan jarraitu nuen, eta aldi berean, neu nintzen gazteen zuzendaria. *Ekain* izeneko taldearekin ere ezkontzaz ezkontza ibiltzen ginen, eta ni nintzen abeslaria. *Ekain*en nenbilela Magisteritza Musikala ikasteari ekin nion. Baina, lehenagotik ere banituen ikasketa gehiago. Adibidez; pianoan zarpigarren mailara arte, armonia, musikaren historia eta kontserbatorioko gradu ertaineko ikasketak.

### DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1977ko ekainak 13.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Hendaia. ||| **Lanbidea.**

Musikako irakaslea.

### Telebistan asko ibilitakoa zara. Zer moduzko esperientzia izan zen hura?

*Aire Aire*-n egin nuen telebistako lehen agerraldia. Jose Mari Iriondok aurkezten zuen saioan Benito Lertxundiren kanta bat abestea erabaki nuen. Dirudienez, berak ez zuen ikusi, baina, baten batek neska bat bere kanta abesten ikusi zuela komentatu zion, eta ni ezagutzeko gogoia sartu zitzaion. Handik hilabetera, Joxe Felipe Auzmendiren *Telletxea*-ra eramane ninduten. Gonbidatu bezala Benito Lertxundi eramane zuten, eta ni, beretzako sorpresa bezala

eramane ninduten. Han hasi nintzen berekin hartu emana izaten, eta orain, harreman ona dugu. Handik, abeslarietzako txapelketa bat zuzentzen zuen *Izar Bila* programara joan nintzen. Hogei parte hartzaile ginen, eta gehienek kanpoko abestiak kantatzen zituzten, ingelesez gehienbat. Ni nintzen Xabier Leteren kantak abesten zituen bakarra. Jendeari hori gustatu egiten zitzaioela uste dut, programa ETB1eko zela kontuan hartuta. Finalera iritsi nintzen, baina Marife Nogalesek irabazi zuen. Txapelketa amaitzean, bi finalistoi *Sorginen Laratza* saioan abesteko aukera eskaini ziguten. Bost urte pasa genituen astero programan abesten. Ni orduan ez nintzen hortik bakarrik



bizi, eskolan ere lana egiten nuen irakasle, baina, lanaldi herenean nengoan. Askotan duo bezala Xabier Euzkitzerekin ere abestu nuen.

**Jende ezagunak letrak egin dizkizu diskarako.**

Kantak egitea oso erlatiboa da, sortzaile bakoitzak bere sistema baitu. Batzuk lehenengo letra sortu eta gero doinua jartzen diote. Nik alderantziz egiten dut, eta hori beste pertsona batzuk egin izan didate. Behin, Euzkitzek berak eskatu zidan doinua sortzeko, gero berak letra idazteko. Bestetan alderantziz izaten da. Hau da, neuk eskatzen diet beraiei, neuk sortua daukadan doinu bati letra jartzeko. Adibidez, Pako Aristirekin gelditu nintzen behin, eta bi kanten letrak egin zizkidan. Asier Serranok ere egin izan dizkit hiru edo lau, eta baita Andoni Egañak ere. Horiek idatzitako letrekin egindako kantak dira diskoko abesti guztiak.

**Honakoa diozu zure emanaldiagatik zure web orrian: "Ordubeteko emanaldi intimista, kontzertu lasai batean gozatzeko modukoa..." Zer esan nahi duzu?**

Diskako kanta gehienak oso intimistak dira. Idazle ezberdinek idatzitako abestiak diren arren, beti ere niri gertatu zaidan zerbaiten inguruko letrak dira. Beraiekin geratzen nintzen eta nire sentipen eta gertaturikoak kontatzen nizkien letra zerren inguruan idatzi azaltzeko. Emanaldia oso intimista da, nire tripak ateratzen

“Bi urterekin Loiola Herri irrastian abestu nuen”

“Gertatu zaidan zerbaiten inguruko Letrak dira beti”

ditut, amodiozko kontu etabarrekin. Helburua zera litzateke: Jendearen aurrean biluztea.

**'Prefosta' taldea ere izan zenuen lehenago.**

*Sorginen Laratza* bukatu zenean, bost urtean bertsioak kantatzen ibili eta gero, Azpeitiko Udalak San Inazioetan kontzertua ematea proposatu zidan. Aurretik ere bi urte jarraian proposatu zidan, baina jakina, nik ez neukan talderik programan bakarrik abesten bainuen, beraz, ez nintzen joan. Hirugarren aldiz eskatu zidatenean, beraz, aukera pasatzen ez uzteagatik taldea sortzea erabaki genuen ezagutzen ginen inguruko musikari batzuk. Pianista batekin eta beste sei musikagilerekin osatu genuen. Euskal kantarien abestiekin egindako bertsioak abesten genituen. Izena *Prefosta* jartzea erabaki genuen. Horrekin arrankatu genuen, baina helburua zen pixkanaka *Prefosta* difuminatzen joatea, eta denborarekin neu bakarlarri gisa gelditzea. Hori izan da prozesua, pixkanaka-pixkanaka *Prefosta* uzten joan gara, eta nire kantekin eta bakarlarri gisa aritzeko apustua egin dugu.

**Taldekilde ber-berak jarraitzen al duzue?**

Beste hirurekin nago, eta horietako bi *Prefosta*-tik datoz. Hirugarrena, kontrabaxua, berria da. Lau gaude taldean, izan ere, egungo krisiarekin oso zaila da talde bat aurrera ateratzea. Imajinatu, zazpiko talde bat ekonomikoki kostu izugarria izango litzateke. Etorkizunean gauzak hobetuko balira ba... joango ginateke pixkanaka aurreko talde berdinarekin joaten, gustatuko litzaidake.

**Etorkizunerako proiekturik?**

Ahalik eta kontzertu gehiena ematea.

**Azpeitian noizko kontzertua?**

Ba, seguruenik emango dugu. Eguna jartzeko dago oraindik baina... Ilusio handia daukagu Azpeitian kontzertua emateko. Uda-berri honetan edo aukera izatea nahiko genuke.\*

**innova**dental

Azpeitiko hortz klinika batek higienista bat behar du egun erdirako.

Interesatuak bidali curriculum-a [innovaazpeitia@gmail.com](mailto:innovaazpeitia@gmail.com)-era.

# Txanponaren bi aldeak

**E**gun hauetan ohikoa izan da gure herriko saltokiak jendez gainezka ikustea, Gabonetako bazkari eta afari jendetsuetarako erosketak egiteko asmoz. Salto-kien atarian, berriz, urte guztian bezalaxe han jarraitzen dute eskaleek, hotzari aurre eginez. Txanponaren bi aldeak aurrez aurre.

Beti esaten dute munduko pobreen artean pobreenek ere badutela beraien etxea, eta etxe hori egun batean Alejandro Magnok bere armadarekin konkistatu nahi izan zituen lurrez bestalde dago. Leku hori misterioz inguratuta egon izan da Marco Poloren kroniken garaitik, eta hara iritsi nahi zuen Cristobal Colonek. Zuetako askok dagoeneko asmatuko zenuten leku horrek India duela izena.

Gaur egun bigarren herrialderik populatuena da, 1.000 milioi biztanlerekin. Indostan penintsulan kokatua dago, eta hura da munduko pobreen artean pobreenen etxea. Bizirauteko senari erantzunez jarraitzen dute aurrera, eta bizi hobe batean haragitzea da beraien itxaropen bakarra.

Uda honetan bertan egoteko zortea izan nuen, eta hiru asteko bidaiak apenas eman zigun aukerarik neurrigabeko herrialde horren zati txiki bat ezagutzeko. Eta zortea diot, bai, gure planetako errealitatearen beste aurpegia ezagutzeko aukera eman baitzidan. Oparotasunezko errealitatea utzi genuen atzean hegazkina hartu genuenean, eta iristen zarenean, aireportutik atera orduko miseria eta biziraupen errealitate batekin egiten duzu topo.

Guztiok bizi beharko genuke noizbait halako esperientzia bat, horrek gure planetaren inguruko ikuspegi objektibo bat hartzen lagunduko bailiguke, non aberastasuna izan ezik guztia globalizatu baiten. Bisitatu genituen toki guztien (hasi Delhitik Agraraino, Varanasitik zehar) antzekoa aurkitu genuen: ume eskaleak, txaboletan bizi ziren familiak, zabor artean jateko zerbaiten bila zeblen jendea...




■■■■■■■■■■markel mendizabal■■■■■■■■■■

■■■Bigarren herrialderik populatuena da. Hura da munduko pobreen artean pobreenen etxea

Herrialde honetan pobrezia maila sinestezinetara iristen da. Gainera, gizartea oraindik ere kasten sistema tradizionalan oinarritzen da, batez ere landa eremuetan. Sistema horren arabera, kasta baxuenetakoak (herriar gehienak, alegia) kondenatuta daude tokatu zaion errealitatearekin konformatzera, ez daukate bizimodua hobetzeko aukerarik eta itxaropenik. Emakumeei modu ikaragarrian eragiten die: familiek adostutako senarra onartzera behartuta daude eta senarraren familiari dotea eman behar izaten diote. Ondorioz, familiek nahiago izaten dute alabarik ez izan, eta horregatik ohikoa bihurtu da neska jaioberriak umezurtz-etxeetan uztea, Txinan gertatu den bezala.

## Gutxi batzuen eskuetan

Biztanleen %35k ez daki ez idazten ez irakurtzen, eta emakumeen artean %46ra igotzen da portzentaia. Horrek harrigarria eman dezake ekonomikoki hain indartsu hazten ari den herrialde batean, munduko laugarren estatua baita barne-produktu gordinari dagokionez. Esan beharrik ez dago sortzen den aberastasuna gutxi batzuen eskuetan gelditzen dela. Eta, han bezala, baita hemen ere.✳



# URTE BERRI ON 2011



**uztarria**

**hrt** AZPEDITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

# Euskararen gorabeherak

**S**entitzen, hunkitzen, maitatzen, ikusten, haserretzen, gozatzen, mami-tzen, saretzen, sumintzen, txoratzen, gogaitzen... erakutsi dit euskarak. Gu gure hizkuntzak ere egiten gaituelako; guk gure hizkuntza ere egiten dugulako.

Unescok abenduan plazaratu zuen txosten baten arabera, bi astean behin desagertzen da hizkuntza bat. Hiltzen uzten diogu, alegia. Edo zenbaitzuren neurriek, edo neurri ezak, hiltzen ditu. Munduko ideosinkrasia txiki eta bereziak etengabe galtzen ari dira. Horrekin batera, herri izaera, kultura eta mundu ikuskerak bakanak.

Txosten horren arabera, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroan tiriki-tarraka bada ere ari da euskara bere bidea egiten. Oraindik ere arrisku egoeran da Aitorren hizkuntza zaharra, baina aurrera goaz. Arriskuan dauden hizkuntzen mailaketan maila baxuenean gaude (5. mailan). Baina bada salbuespenik: Lapurdi, Zuberoa eta Baxe Nafarroa. Iparraldean, euskara arrisku larrian baitago. Azterlan horren arabera, Iparraldean aitona-amonek hitz egiten dute, horien seme-alabek ulertzen dute, baina ez dute erabiltzen, eta bilobek ez dute ulertzen eta ez dute erabiltzen.

Iaz, Eusko Jaurlaritzak 2006an egindako inkesta soziolinguistiko baten emaitzak plazaratu zituen. Haren arabera, 863.840 euskaldun gara Euskal Herrian (3 milioi biztanle inguru gara). Eta horietatik 755.640 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi gara. Horrelako inkestetan beti duda berdina gelditzen zait. Zein dira norbait euskalduna dela zehazten dituen irizpide edo parametroak? Behin lagun batek esan zidan euskaraz amets egiten ikasten zuenean izango zela euskaldun.

## Herriko bitxikeriak

Baina gertatzen dira kontu bitxiak hizkuntzarekin. Bada gure etxe ondoan haur parke bat. Duela zenbait hilabete, parkea zeharkatzen ari nintzela bi haur ari ziren jolasean. Beno,




ihintza agirretxe

Behin lagun batek esan zidan euskaraz amets egiten ikasten zuenean izango zela euskaldun

bat besteari zerbait esaten ari zitaion, eta ziru-dienez ez zen bere gustukoa, ez baitzion kasu gehiegirik egiten. Derrepente, han dator berriketan ari zenaren ama. Eta to, bi umeen kontuetan sartu zen: "eztizu entendi-tzen, ez al dezu ikusten kanpokue dala? Esayozu erderaz, zuk badakizu ta". Alajaina. Bai, gurasoak kanpokoak ditu ume hark, baina hiru anai arreba dira, eta beren arteko hizkuntza euskara da. Bai parkean jolasean ari direnena behintzat. Behin baino gehiagotan eman baitit atentzioa. Han gelditu ziren entzun nahi ez zuena entzungorrena egiten; eta, bestea, gaztekeraz ezin asmatuta izerditan, ama ondoan zuela.

Duela aste batzuk, berriz, kalean nindoala bi emakume eta haur txiki bat tokatu zitzaizkidan parez pare. Itxura ikusita Afrika iparraldekoak zirela esango nuke. Emakumeetako bat haurra despeditzen ari zen, eta han non entzun nuen: "Bota pa izebai, Leila". Ez nuen espero horrelakorik entzuterik, eta irri egin nion, ongi ari zela adierazi nahian. Berak ere poztasuna adierazi nahian bere irriarekin erantzun zidan. Zorionez, euskarak gero eta aurpegi, kolore, arraza eta sustrai gehiago ditu.✳







## euskara eta komunikazioa

### Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Web orrien diseinu eta programazioa
- Iragarkiak

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Lasai, barkatuta zaude!

Eginbeharren bat izango zuen saltzaile honek, eta denda itxita izango duela jakitera emateko kurioso asko idatzi du kartela, euskara hutsean. Bejondeiola! **Uztarria**

**BEHERA.** Konponketak gaztelaniaz.

Herriko saltoki bateko kartela irakurrita, pentsatu daiteke euskarak ez duela konponketarik behar... Ea kartelak euskaraz idazten hasten garen! **Uztarria\***



Joxemari Iriondo.

## ESANA DAGO

“Euskara zabaltzea munduko lanik ederrena izan da”

“Penaz esaten dut, baina ETB ikusteari uzten ari naiz. Lehen, Surioaren esanetan, EAJk politizatua zeukan EITB... Ez, ez, hori ez da egia. Gaur dago politizatuta EITB!”

JOXEMARI IRIONDO  
kazetaria

“Adinaren arabera aldatzen goaz, ikasten, baina, esentzia punkia beti ateratzen zaigu”

ARITZ GUERRA  
Kasik taldeko bateria



kutxa



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



txetxu urbieta

## Ke zurikeria

**O**rri zuri baten aurrean jarrita, niretzat, lanik zailena buruan ditudan datu eta ideiak nola uzartu izaten da. Zer esan nahi dudan jakin bai, baina nola esan asmatu ezinik ibili. Helmuga bai, baina biderik ez.

Martxiali esker, urteetan, kearen eskualdeko hiriburu izan gara. Ke horrek, ia seguru, gaixotu egin gaitu, baina ke horri esker poltxikoan ondo bizitzeko adina txanpon izan dugu. Gaur egun, Martxialeko kea ez da lehengo kea. Hori dela eta, bada nahikoa burukomin eta komeria.

Kea zikina eta itsusia da kaltegarria izatearekin batera. Gizarte honetan itsusiek eta zikinek ez dute lekurik. Kaltegarria izatea ez da baztertua izateko ezinbesteko baldintza.

Tabakoaren kea ere itsusia eta zikina da, kaltegarria izatearekin batera. Zikina denez baztertu egingo dugu, baina norbaiten patrikak berotzen dituenek, kaltegarri izan ala ez, estankoetatik ez da desagertuko. Amatxo edo aitatxo estatua beti gutaz kezkatuta, baina ia beti bere mesedetan.

Leku publiko guztietatik desagertuko da tabakoaren kea. Lantokian kerik ez, tabernan kerik ez, hau da hau mauka, hau da hau paotxa. Guretzat osasuna eta gure mesedetan ke usaina kentzeko arropak balkoian jarri beharrik ez izatea.

Ke zikina desagertuko da, baina aire egokitu ikustezin eta isila indartzen ari da. Neguan biluztu egiten gaitu, eta udan tapatuarazi. Baina ikusten ez denez, zikina ez denez eta aurreneko kolpean gozagarri denez, ameto, baleko. Udan hotz eta neguan bero. Mende berriko izurritea.\*

## IKUSTEKO!



### ▲AZER TRIPADUENA BLOKE HONEK!

Barrura sartzerik ez dago, atariko atea hormatuta edo itxita baitago. Eskerrak! Argazkian, argi ikusten ez bada ere, Eliz kalean dagoen etxe honen aurrera gerturatzten denak nabarmen asko ikusiko du lehenengo pisuko balkoiaren azpiko hormak sekulako konkorra eta pitzadura dituela. Parean pasatzerakoan, beraz, kontuz ibili! 📷👉 Ainitze Agirrezabala\*



aitor gorrotxategi



## Urolako Trena

**BERRIRO ERE MARTXAN?** Txikitako zenbat oroitzen ekartzen dizkidan urolako trenak. Herrian dugun trenaren museoak ere arrakasta handia du, eta bisitari ugari izaten ditu urtean zehar. Batera eta bestera mugitzeko garraio publikoa erabili behar badugu, horrelako azpiegiturak izatea komeni zaigu, eta merkantzia garraiatzeko jarri behar bada, zergatik ez jarri jendeak bidaiatzeko? Ea kontutan hartzen duten gure eskaera.



## Unai Frantzesena eta 'Ze esatek!'

**ARRAKASTA.** Hauek dira fenomenoak! Lagun talde bat elkartu, izen bat asmatu –*Ze esatek!*–, eta itzelezko arrakasta lortu. Fenomeno sozial asko gertatzen dira, baina guk gertu izanik aipatzeko modukoa da. Zorionak eta jarraitu horrelakoxeak izaten urte askotan.



## 700 urteko historia

**ZAZPI LIBURUTAN.** Badirudi atzo zela, baina gure herriak herri-gutuna jaso zuela 700 urte bete dira aurten. Gure historia jasotzea ezinbestekoa zen honelako urtemuga batean, eta bilduma hauek behar bada gutaz eta gure-etaz gehiago jakiteko balioko digute.



## Gabonetako kanpaina

**BERTAN ELKARTEA.** Krisia dela eta ez dela, herriko merkatariek nahikoa triste omen daude, elkarte bat ere osatu zuten, eta badirudi bere fruituak ematen ari dela. Gutxi bada ere, gastatzen duguna ea herrian den.\*

## INKESTA

2011. urteari  
zer eskatzen  
diozu?

 Ainitze Agirrezabala

**JOXEJOAKIN IZAGIRRE**  
azkoitiarra



"Abertzale eta ezker aldeko denok, behingoz, bat egitea, guztion

arteana Euskal Herria aurrera ateratzeko. 2011. urteko Gabonetarako euskal preso politiko guztiak etxean izatea, horixe eskatzen diot nik urte berriari".

**BEGOÑA ZUBIZARRETA**  
azkoitiarra



"Osasuna, lana eta maitasuna izatea eskatzen diot sartu berri

garen urteari. Kirola gogor egiten ere hasi nahiko nuke. 2011 izan dadila 2010. urtea adinakoa".

**JABIER AZURMENDI**  
azpeitiarra



"Urte berriari osasuna eskatzen diot; hura gabe, gainontzeko

gauza guztiak alperrikakoak baitira. Krisi latz honi ea buelta ematen diogun, eta lan mundua hobetzen den".

**MIRIAN ARRIETA**  
azpeitiarra



"Atzean utzi berri dugun urtea, 2010. urtea, oso ondo joan zait;

gustuko dudana ere bilatu baitut. 2011. urtea 2010.a adinakoa bada ni oso gustura izango naiz".\*

## Kondaira galduak

**A** benduaren 14ean, duela 50 urte, Nazio Batuen Erakundeak ebazpen bat onartu zuen, kolonizatutako herriei autodeterminazioarako eskubidea aitortuz. Baina, oraindik ere, kolonialismoa hainbat lurraldetan indarrean dela jakinarazi du, nahiz eta harrezkero 80 diren mundu osoan independentzia eskuratu duten lurraldeak. Lortu gabekoen artean Mendebaldeko Saharako auzia zerrendan lehena dela aitortu ere. Hori dela eta, Azpeitian hainbat ekintza antolatu ziren, Sahararekin bat eginez: argazki erakusketa, hitzaldia... Berriz ere euskaldunak solidarioak azaltzen gara, herri bezala dagokien, eta dagokigun, eskubide horiek aldarrikatuz. Bi herriok senideturik, biak ere beren aberri galduen bila.


Koldo Martinez Garatek argitaratu berri duen *Sintesis de la historia de Navarra* liburuan Nafarroako Erresumaren bilakaeraren laburpen bat egiten du. Nola eraiki zen berezko modu naturalean, bertakoek Carlomagnoaren gudaoste boteretsuak bi aldiz



**HIGINIO OIARTZABAL**

garaituz, Orreagako mendiarte estu eta luzean, harripatu eta harrikatu ondoren. Handik urte gutxira, 824. urtean, Eneko Aritza Iruña Erresumako Errege izendatu zuten, geroago Nafarroa izenez ezagutuko zen erresuma. Denboran hedadura handia eta zabaldua hartuz joan zen, garai haietan euskara ere oso zabaldua zegoelako. "Euskal Herria deritzo kulturalki, hizkuntzaz, eta etniaz, baina Nafarroa politikoki". Bera izan dugu aberri propio eta bakarra, zazpi mendeetan hegoaldean, eta beste mende bat gehiago Iparraldean. Gaztelak etengabeko eraso eta bortxa bidez, inbaditu eta konkistatu hala, bertako idatzi eta zantzu guztiak erre eta desagerrarazten zituzten, gero eurek beste kondaira bat antolatzeko. "Herri baten memoria historikoa ezabatzea lortzen badute, irabazleak bi aldiz garaitzen dute, bat arma bidez, eta bestea kondaira manipulaturik".

Marokok ere ez du nahi lekukorik Saharan. Historia behin eta berriz errepikatzen da.\*

**galDETzen hasita, eta tabakoaren Lege berria dela eta, erretzaiLeen klubik sortzeko asmorik ba ote gurean?**  **Uztarria**

## Dena arrunt

**H** arritzeko gaitasuna galduta dudala konturatu nintzen Indiara egindako bidaietan. Elbarri dezente dago han, belaunetik behera bi hankak moztuta dituztenak. Lau hankan ibiltzen dira kalean, oinez ikasi ez duten umeen gisan. Eskailerak ere zakurren abildade berberarekin igo eta jaisten dituzte. Despistatuta harrapatu ninduen aurrenak, eta begiratu nion, baietz, pertsona bat zela baieztatuz. Bigarrena ohikoago egin zitzaidan. Hirugarrenerako Erdi Kalean egunero ikusiko banitu bezala zen.

Adibide sinple bat da, egunerokoan hamaika dira halakoak. Pasarte horrekin akordatu nintzen aurrekoan. Enpresa baten itxierari buruz ari nintzen idazten egunkarian. Langile batzordekoek etsita kontaktu zidaten azken hiru urteetan bederatzita milioi euro banatu zituztela akziodunen artean, eta orain 30 langile bota zituztela, gehienak 50 urtetik gorakoak eta enpresan 20 urtetik gora zeramatzenak. Arrazoi bakarra eman zien zuzendaritzak: nahiago zutelak



**MIREN GARATE**

Asian inbertitzea, hemengo lantegiak ez ziola inportatu, nahiz eta berez Euskal Herrian sortutako enpresa izan. Bat gehiago. Politika sailekoak ditugu aurrean, haiek azken sarekadari buruz ari ziren. Kazetariaren lehen galdera, torturarik salatu al zuten. Normal egin zuen galdera. Ezkerrean mundukoak, Sahara, Berlusconi edo Korea eta Boli Kostako gerra hotsak, auskalo zer gairekin zebiltzan. Asko asaldu gabe.

Harritzeko gaitasuna galtzeak hori dakar, erreakzionatzeko erreflexuak ere itzaltzen direla, eta normaltzat hartzen ditugula arruntetik ezer ez duten kontuak. Amaitu da mende berriko lehen hamarkada, eta urte berriari begira jarri gara dagoeneko. Greba orokorra, Udalbiltzaren epaia, hauteskundeak, tabakoaren aurkako legea, pentsioen erreforma... Interesgarri dator 2011 hasiera. Harritzeko moduko gauza dezente gerta daitezke, baina ez dakit harrizko garen.\*



LUB-DUB  
LUB-DUB  
...

zorionak

saltzeko  
erosteko  
eskaintzeko  
eskatzeko  
aurkitzeko

...



www.iragarkiaburrak.com  
txintxarri.iragarkiaburrak.com  
otamotz.iragarkiaburrak.com  
soraluze.iragarkiaburrak.com  
elgoibarren.iragarkiaburrak.com  
bidasoamedia.iragarkiaburrak.com  
ukberri.iragarkiaburrak.com  
oarsoaldeko hitza.iragarkiaburrak.com  
tolosaldeko hitza.iragarkiaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkiaburrak.com  
urola-kostako hitza.iragarkiaburrak.com  
irutxuloko hitza.iragarkiaburrak.com  
goierriko hitza.iragarkiaburrak.com  
11barri.iragarkiaburrak.com  
baleike.iragarkiaburrak.com  
geugasteiz.iragarkiaburrak.com  
etakitto.iragarkiaburrak.com

*milaka bisita, egunero*

# zure-azoka

**Erregistratu zaitez**  
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

**norbanakoak**  
*doan*

**enpresak**  
*leku eskusiboa*

*Jarri zure  
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa  
**100.000**aleko zabalkundearekin.

# Labeak bero-bero

Oraindik gaua itxia dela, goiz argitu du Errotaundin. Eguneko lehen ogi erre berriak labetik ateratzen harrapatu ditugu okinak. 🍞👁️ Ainitze Agirrezabala





### ▼ OREA.

Ogiaren orea egitea da lehen urratsa, eta, horretarako, oregailuan osagai guztiak nahasten dira: irina, ura, gatza eta legamia. Ondoren, orea beste makina batetara botatzen da, eta han ogi bakoitzak izango duen tamainaren arabera zatitzen da. Argazkian, Jexux Roca, orea makinaz batetik bestera pasatzen.



### ▲▼ ERRE.

Nahi den pisuaren arabera orea zatitu ostean, borobildutako ogi bakoitza nailonezko poltsatxoetan sartuta loaldian uzten da, hamabost minutuz. Gero, beste makina batek barra formatuan ateratzen ditu ogiak. Goiko argazkian, Pello Arenas eta Sofia Tejerina ogiak bandejetan jartzen. Ondoren, itxuratutako ogia tenperatura kontrolatua duen hozkailuetan uzten da hainbat orduz, harrotzeko. Azken urratsa. Hozkailuetako ogiak labean erretzen dira. Ogi motaren arabera, aldatu egiten da erretzeko labe mota eta erretzeko beharden denbora. Beheko argazkian, Yobani Antonio Vargas, su-egurraren gisako labean ogiak erretzen.






### ▲ BIZKOTXOA LABETIKATERATZEN.

Euskalerria auzoko okindegian eduki dute urteetan lantegia. lazko maiatzean, ordea, Landetako pabiloi berrira pasatu ziren. Errotaundiko nagusi Antton Albisuren esanetan, "lehenago lantegia txiki geratu" zitzaien, eta Osasun-ministroak "exijitutako baldintzak ere bete behar", eta lekuz aldatu zuten tailerra. Ogiak egiten ez ezik, gozogintzan ere aritzen dira. Argazkian, Igor Urdineta ijito-besoa egiteko bizkotxoa labetik ateratzen.

### ► ION SEMEA, LAGUNTZEN.

66 urte ditu Anttonek, baina "erretiratzeko asmorik ez". Hiru seme ditu, baina "ofizioarekin segitzeko erreleborik ez" duela izango uste du. Argazkian, Ion Albisu, pastel-krema egiten.



### ▼ IJITO-BESOA.

Gozoei dagokienean, Errotaundiko tipikoa ijito-besoa da. Argazkian, Nieves Vazquez bonbak frijitzen.



### ▲ ERREGE-ERROSKOAK.

Gabonetarako nahikoa lan izaten dute errege-erroskoak egiten. Igor Urdineta arduratzen da horretaz.





### ▲ BANAKETARAKO PREST.

Jaiotzez zaldibiarra da Antton, eta gurasoek Goierriin zuten ogibideari berak hartu zion erreleboa. Egun, bi okindegi ditu Azpeitian, eta beste horrenbeste Azkoitian. Guztira, lantegiko langileak eta okindegietak saltzaileak kontatuta, 21 langile ditu bere arduruan. Argazkian, Antton furgoneta ogiz eta gozoz beteta, eguneko lehen banaketa egiteko prest.



### ▲ GOSARITAN.

Goizero, 03:30ean hasten da lanean Antton, eta 07:00ak aldera, Jose Artetxen duen okindegian gosaltzen du. Argia garestituko dela irakurri du egunkarian, eta hala dio: "laster bizirik jango gaituzte! Irinaren prezioa ere, espekulazioa medio, %38 garestitu da azken urtebetean". Gosaritan kontuak.\*

# Memoriaren zuloetan gordeta

1936ko gerrateko hobi komunen mapan agertzen da Urrestillako hilerria. Han, kanpoaldean, hil eta hobiratutakoak zenbat eta zein ziren? 📎🗺️ Uztarrria

**A**hantzeko gehiegi. Hildako gehiegi, izugarrikeria gehiegi. Gerra, eta zikina; gerra garbirik badenik sinestea zaila baita. Eusko Jaurlaritzak, Aranzadi elkartearekin elkarlanean, joan den urrian plazaratu zuen –eta Interneten jarri– 1936ko gerrako eta ondorengo diktadura garaiko EAEko hobi komunen mapa eta desagertuen zerrenda. 42 udalerrri zerrendatuta dituzte momentuz mapa horretan: 10 Araban, 11 Bizkaian eta 21 Gipuzkoan. Hobiak gehiago dira, herri batzutan bat baino gehiago kontatu baitituzte. Desagertuen zerrendan, milaka batzuk bai. Gehiegi, eta urte gehiegitan ezkutuan eta erdi ezkutuan gelditu zirenak.

Mapa itxuran emandako memoria zanpataren berreskuratze ahalegin horrek puntu bat, toki jakin bat, seinalatu du gurean. Urrestillan, bertako hilerriaren kanpoaldean, dago gerra garaiko hobi komunetako bat. Hantxe egon da, eta dago, 70 urtetik gora pasatu direnean. Eta han zegoela jakin bazekiten Urrestillan askok, han gertatutakoaren gaineko berri ere bai. Berriak zehatzak diren ala denborarekin itxuraldatuak izan diren jakitea



zaila da. Are zailagoa, dirudienez, hobi hartan zein lurperatu zuten jakitea. Kontatu izan den guztia da gordina, hori bai; gerra bera bezain gordina. Gerra hartako beste hainbat kontu bezala, ordea, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa, memoriaren ondoreztatzea, ez da ez modu naturalean gauzatu. Gazteenek apenas duten orduko berririk.

Urte guzti hauen buruan, inork ez ditu erreklamatu han egon litezkeen gorpuzkinak. Jaurlaritzak eta Aranzadik Urrestillako hobiaz

jasotako informazioaren arabera, hiru gorpu leudeke Urrestillako kanposantu ondoko hobia. Berri-emallearen aitona fusilamenduen lekuko izan zen, eta haren adierazpenak izan dira informazioaren abiapuntua. Haren arabera, Valderrama abizeneko sendagile bate-na izan liteke gorpuetako bat, eta beste biak, berriz, ihesi nahian zebiltzan bi soldadurenak.

Gerra garaian mutil kozkorra zen eta kanposantuko gertaeraren berri gerora izan zuen urrestildar baten arabera, berriz, “bi hil zituztela kontaktzen zuten. Nik gerora aditukoak dakizkit, eta beti entzun izan dut bi gizon afusilatu zituztela han. Bat Azkoitiko Ormola zela esaten zuten; bestea zein izan daitekeen, ez dakit”. Eta gorpuak hantxe bertan lurperatu zituzten, hilerriko paretaren ondo-ondoan, baina kanpoaldean. “Gerora ere nabarmen antzematen ziren bi lurperatzeen markak, elkarren ondoan”, dio Urrestillako lekukoak.

## Beste bi ere bai

Kanposantukoak ez ziren izan Urrestillan gerra garaian jazotako hilketa bakarrak.



Urrestillako hilerriaren kanpoaldeko hormetako bat. Inguru horretan dago hobi komuna.

1936ko gerran afusilatutakoen edota exekutatutakoen zerrenda luzearen beste lerro bat ere ezagutu zuten Urrestillan.

Bigarren heriotza hauen lekuko zuzena, edo heriotza ondorenarena behintzat, izan zen Uztarriari bere lekukotasuna eman dion urrestildarra: "Beste bi Zamai azpian [Aratzerreka bidean dagoen baserria da; Uranga Goikoa du izen ofiziala, baina *Zamaye* bezala ezagutzen dute] hil zituzten, hori gogoan daukat. Han hil zituztela zabaldu zen, eta gu ikustera joan ginen. Ni mutil kozkorra nintzen, baina oraindik gogoan daukat gorpuak nola ikusi genituen; bat buruz gora zegoen, Aratzerreka aldera begira, eta bestea beheeraka,


kamin bazterrean". Azpeitiko kartzelatik –orain anbulatorioa dagoen eraikinean zegoen– eraman zituzten nonbait Urrestillara, tiroz hiltzeko. "Bat bizkaitarra omen zen. Gogoan daukat Urrestillako gizon batek –karlisten aldekoa, dirudienez– ezagutu egin zuela, eta nola esan zuen: 'Gizon horrek ere hori merezi al zuen?'. Gerora ere bala zuloak hantxe egon ziren, Zamai azpiko paretan. Makina bat bider egon ginen haiei begira. Haien gorpuak kanposantuan bertan lurperatuko zituzten; hara eman zituzten behintzat, karroan".

Bere begiz ikusi zuenaz gain, Aratzerreka bidean hildakoen gainean beste batzuen ahotik entzundakoak gaineratzen ditu lekuko

honek: "Kartzelatik atera aurretik Aita Laski-barrekin konfesatu zirela esaten zuten. Eta biak hil zituztenak itzuli zirenean, Aita Laski-barrek galdetu omen zien: 'Hil al dituzue?'. 'Bai', besteek. 'Ba, bi aingeru hil dituzue', esan omen zien jesuitak". Zamai azpiko hilketan parte hartu zutenak Urrestillakoak zirela ere kontatzen dute Urrestillan bertan: "Bi joan omen ziren, baina bat ez ausartu tiro egitera, eta besteak hil omen zituen biak".

Uztarriari lekukotasuna eman dion lagunak "eskandalurik ez" duela nahi dio. "Haiek joan ziren, eta kito". Urrestillako kanposantuko hobia daudenek han segitzen dute, baina, ize-nik gabe.

# Hitz egitearen garrantzia

Urrestillako hobi komunaren erreferentzia badute Aranzadin, baina “eskaera formalik jaso ez” dutenez, haien “programaren barruan ez” dagoela han ezer egiteko asmorik azaldu dute.  Ainitze Agirrezabala

**U**rrestillako hobi komunaren inguruan zer informazio duten, eta han zerbait egiteko asmorik baduten galdetu dio Uztarriak Lurdes Arrieta Aranzadiko arkeologo eta antropologoari. Arrietak adierazi duenez, “aspaldiko kontua da hori. Haren erreferentzia hor dago, baina ez dugu geroztik eskaera formalik jaso, eta ez dago gure programan. Aitatu egingo zuen, segur aski, jakinaren gainean uzteko. Asmo edo helburu onenak izanagatik, batzutan informazio horiek ez dira guztiz fidelak izaten, eta gauza bera dioten bi edo hiru informazio-iturri eduki behar dira. Informazio hobeaz lortu arte, toki hauek momentuz baztertuta utzi ditugu. Guk ez ditugu hobiak ateratzen aldeztirik, ez aurretik ez badigu. Nolanahi ere, eskaera formalik iritsiko balitzaigu, eta ateratako hezurrekin zer egin familiari ardura hori hartuko balu, inongo arazorik gabe bertaratuko ginateke. Hori dena aldeztirik

egiteko behar dugu. Ezin dugu nolana ateratu”.

Arrietaren esanetan, familia askok ez dute gorpua atera nahi izaten: “Euren aitona non dagoen jakitearekin konformatzen dira. Kasu honetan, aitona kanposantutik gertu badago, erreferentzia argia da, eta baldin badakite loresorta nora eraman, ba, goial, ez dute ateratzearen beharrik. Orain, gorpua mendi punta batean, edo bide-bazterrean badago, horiek gehienetan ateratzea eskatzen dute, eta, orduan, bai, horiei ematen zaie lehentasuna.

## Eman beharreko pausoak

Informazio bat jasotzetik, indusketa lana burutzeraz, prozesu bat jarraitu behar da beti. “Lehenengo, bertara joan, eta ingurua ikuskatu, eta hobirik egon daitekeen egiaztatzen dugu. Aldez aurretiko txosten bat osatzen dugu: kokapena, zein egon daitekeen bertan eta nork eman digun informazioa. Gero, hobi hori kanporatzeko es-

kaera formalik jasoko bagenu, hainbat eskaera ofizial egiten ditugu: lurjabeari, kanposantu ondoan bada Udalari, ondareari, eta epaitegiari”. Behin txostena egin da, indusketa-lana burutzen dute: “Ikerketa antropologikoa egiten dugu, identifikazio prozesua: zer sexutakoa den, adina, garaiera... Datu onak ditugun kasuan, hurbilketa bat egiten dugu; alegia, pertsona edo eskeleto hau izan daiteke halakorena. Baina, hori egin ezin denean, genetikoki egiten dira frogak, laborategian. Kasu batzutan, eskeletoa ia deseginda dago; izan ere, euri asko egiten du hemen, eta lurrak buztina izanda azidotasun handia du. Halakotan, hezurrek lurrean utzitako

arrastoa jarraitzen dugu. Hobi komunak ateratzean azaldu izan dira apain-orrizak, medailak, botoiak, gerriko hebilak, txanponak edo txiskeroak... eta, horiek familiei entregatzen dizkiegu”.

## ‘Los 13 de Priaranza’

“Kasualitatez” hasi zen orain hamar urte Aranzadi Zientzia Elkarteak hobiak ateratzen, Arrietak kontatu duenez. “Orain gure laguna den Leongo Emilio Silvak bazekien bere aitona Gerra Zibilean hil zutela, desagertutako aitona zela. Orduan, galdezka hasi, eta jakin zuen non egon zitekeen. Berak aitona atera nahi zuen, baina fundamentuz. Hala, gure lagunak ziren Leongo antropologo eta arkeologo talde batekin harremanetan jarri zen, eta haiek guri deitu ziguten, beraiekin lana egiteko. Joan ginen, eta han deskubritu genuen hau dena. Lehenengo aldiz metodo arkeologikoa erabiliaz, orduan egin genuen Espainian hobi komun baten indusketa. 2000. urteko urrian.”

*Los 13 de Priaranza* bezala ezagutzen da Priaranza del Bier-



*Lora-etxea...*

**Kimubat** 

**ASTE BUKAERAN IREKIA**

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



Lurdes Arrieta.  Ainitze Agirrezabala



**urke**  **ondo pasa san sebastianak**

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK - salbe auzunea 35 - telf 943 15 12 87 - azpeitia

zo herriko (Leon) hobi komun haren indusketa. "Hamahiru pertsona atera genituen, eta, orduan, konturatu ginen denak fusilatua izan zirela. Zauriak zituzten. Garondoa jasotako tiroz hil ziren. Indusketa hartan jabetu ginen hobi asko egon zitezkeela. Orduan hasi ginen pixkanaka ezagutzen zer errealitate zegoen. Beno, inork ere ez zuen inolaz ere pentsatu hainbeste egon zitezkeenik. Kalkulatu, Garzonen zerrendetan 130.000 lagunena desagertzea agertzen dela".

Priaranza del Bierzoko lehen indusketa hura eta gero, hobi asko atera ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. "Estatu mailan aritzen gara eta 225 hobi atera ditugu. Momentu honetan nahikoa gogor Nafarroan ari gara".

Kopuruz, ordea, "hobi eta pertsona gehienak Burgosen atera" dituztela azaldu du: "La Pedrajan, Burgos iparraldean, Errioxatik oso gertu, iazko abuztuan 104 pertsonako hobia atera dugu. Eta, Lerman beste 100; eta, Aranda de Ebron guztiak batuta 150etik gora. Herrietatik atera, aparteko paraje batera eraman, eta han akabatutako pertsonak dira. Denon artean ateratakoak batuta, 4.000 pertsona inguru atera ditugu. Haietatik 2.500 Malagako hilerrian. Gu, gehienbat, Gaztela-Leonen ibili gara, Aragoian, Gaztela-Mantxan... Leku askotan; eta, oraindik ere, lana badago. Noski, ez atera ditugun adina ateratzeko; izan ere, leku asko desagertu egin dira errepi-deak eta eraiki direlako". Hobi komunaren indusketetan "ateratako pertsonetan askoz ere gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino. %98a gizonezkoak dira".



Metodo arkeologikoa erabiliz, Aranzadiko arkeologo taldea hobi komun baten indusketa egiten. |||Aranzadi

Bestalde, ehun lagun-eta ateratzen dituzten hobien kasuan, familia guztiak ez direla hurbiltzen kontatu du. "Familia gehienek ez dakite. Askok kartzeletatik ateratakoak dira, *saca* dira. Izatez, *saca* hitza dator: 'han sido sacados de la carcel'. Hau da, kartzelan preso zeuden, eta gauero batzuk atera egiten zituzten. Hori da testuetan agertzen dena. Teorikoki esaten du, libre utziak direla kartzelako atean; baina, zain dauden beste batzuk bila joan, aparteko paraje batera eraman eta fusilatu dituzte. Lerman eta Arandan ateratako asko Burgosko edo Lermako kartzeletatik eramandakoak dira".

Ondarretako kartzelatik Hernanira ere hainbat preso eramana izan zirela adierazi du: "200 bat pertsona Hernanira eraman eta fusilatu zituzten. Ez denak batera, aldika-aldika baizik. Hernaniko hilerria joan ginenean, 200 horien bila, dena hustuta zegoen. Arras-

to gutxi topatu dugu, kartutxo gutxi batzuk. Izan ere, Frankismo garaian, edo beranduago, hilerriak berregin dituzte, eta zuloak zeuden tokiak hustu eta eraikin berriak egin dituzte. Arrastorik ez dago, baina kalkulatu da berrehundik gora zeudela".

### "Izu ikaragarria"

Hobi komun gehiago bilatu eta indusketa-lanetan segitzeko bidean, "informazioa zuen jendea

||| "Guk ez ditugu hobiak ateratzen alde aurretik norbaitek eskatzen ez badigu"

LURDES ARRIETA

Aranzadiko kidea

falta" dela adierazi du Arrietak: "Kontatzeko zeozer zutenak hil egin zaizkigu. Geroz eta informazio gehiago geratzen zaizkigu. Famili askok badakite beraien aitona gerrara joan, eta desagertu zela. Ez dute gehiago haren berri izan. Hori da etxean geratu dena. Alabaina, beldurratetik edo, gure gurasoek eta aitona-amonek ez zuten honetaz hitz egiten. Izu ikaragarria zutelako. Frankismoan 'Ixo!', esan izan da, gai honetaz hitz egiten hastean. Urte askoan, hau dena isilpean gorde izan dute, eta horregatik esaten da hau dela bilobek hasitako iraultza. Urteak pasatu eta beldurra gutxitu zaienean, orain hasi dira kontatzen, hitz egiten. Urte askoan informazio mordoa galdu da betiko. Horregatik, oso garrantzitsua da zeozer kontatzeko duenak hitz egitea. Hiltzean informazio hori ez dezatela eraman beraienkin".\*

**Aiertza Autoak**  
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA  
aiertzaautoak@telefonica.net

## KIRKOS SEXOLOGIA ZENTRUA

Bikote terapia sexuala · Gurasoentzako aholkularitza ·  
Eiakulazio goiztiarra · Desio falta · Inpotentzia · Baginismoa

Eliz kale 13, tarteko solairua ezkerrean · ZUMARRAGA · 630 287 321  
Sexologoa: Edu Reguero · AEPS 421z

# Hazi eta aldatu

2011ko urtarrilaren 19ko danborrada aldaketa eta berrikuntzekin dator. Lau talde berri aterako dira, eta haiekin egon da Uztarria. 📝 A. Agirrezabala-M. Oiarzabal

# O

rdubete beranduago. Plazan bukaeran ez, hasieran. Lau talde berri... Aurtengo San Sebastian bezperako helduen danborradan ez da nobedaderik faltako.

Uztarria lehen aldiz aterako diren taldeetako ordezkariekin egon da –Loiolabide-Zaharrekoak iaz atera ziren, baina bandera jaistean bakarrik– eta zera galdetu die: Dena prest lehen parte-hartzerako? Nola baloratzen dituzue danborradak aurten izango dituen aldaketak?



## LOIOLATXO

||| **Xabier Larrañaga, Enekoitz Iparragirre eta Mikel Sesma.**

“jende asko geratu da azkenean kanpoan”

“Orain dela hiru urte proposatu nuen lehen aldiz [Larrañaga], baina orduan ez zuen kon-

tuak aurrera egin. Gero, jende gazteagoarekin-eta gaia atera, hauek ere animatuta zuedela eta, zuzendaritza batzordean egotea tokatu zitzaidala aprobetxatuta, orain dela bi urte proposamena bota egin nuen: ea elkarrekin bere izena erabiltzen utziko zigun behintzat, bazkideentzat gutxieneko kopuru bat ezarrita, taldea ateratzeko. Batzarrak onartu egin zuen. Udalarekin aurretik hitz eginda geunden, baldintzak-eta bagenekizkien. Hurrengo pausoa lan-taldea osatzea izan zen. Gu hirurok aurkeztu ginen, eta hortik aurrera hasi ginen lanean. Jendea apuntatzeko zerrenda martxan jarri genuen, eta gu ja jantzia aukeratzeko lanean hasi ginen. Loiolarekin lotura zeukan zerbait nahi genuen, eta bi aukera sortu ziren: baserritar jantzia eta San Inazioaren garaiko zerbait. Bitartean, jendea izena ematen joan zen eta, zer izan zen gure ezustekoa, 80tik gora apuntatu zirela; bazkideak 50 –erdiak baino gehiago–, eta familiarrekoak besteak. Horrek asko animatu gintuen. Bazkideekin bakarrik kupoia osatzen genuenez, jende asko geratu da azkenean kanpoan, taldean guztira 51 izango garelako. Horrela, jantzien bi proposamen horiek aurkeztu genituen, eta San Inazioaren garaiko jantziak aukeratu zituzten, ia aho batez. Arropak Teruelgo enpresa batek egin dizkigu, eta metalezko korazak eta kaskoak, berriz, Madrilgo batek. Talde erdia militarrez jantzita aterako da, danborra

joaz, eta beste erdia garai bereko zibilez, barrikak jotzen. Entseguen azaroan hasi ginen, astean behin elkartzen gara. Gorabehera batzuk izaten ditugu, baina gustura gaude emaitzarekin. Taldekide gehienontzat lehenengo aldia izango da danborradan.

Azpeitian, sansebastianetan adina jendek ez du beste festatan parte hartzen. Hori ezin da moztu. Hori bideratzeko modua bilatzea da kontua. Ulertzekoa da jendeak aldaketen aurrean beldurra izatea, baina aproba egiteagatik behintzat ez da ezer gertatzen”.



## LOIOLABIDE-ZAHAR

||| **Mikel Azpiazu, Santi Merino eta Javier Etxeberria.**

“danborrada zabalitzearen ideia aspalditik dator”

“Jantzia osatu dugu pixkat, iazkoarekiko alderatuta. Iaz txapel beltzarekin atera ginen eta,





2010eko bezperako danborradaren irudia, parrokia aurreko geldialdian hartutakoa.

konturatu ginen ia ez zela ikusten. Aurten aldatu eta marra hori-belzdun txapelak sartu ditugu, eta mantala ere bai, horia. Alde horretatik, 2009koak esperientzia bezala balio izan zigun, detailtxoak hobetzeko eta. Gai nontzean dena prestatuta daukagu, iaz bezala; orduan ere, udarako guztia osatuta geneukan. 48 lagun gara taldean, 17 elkartekoak eta gainontzekoak kanpoko lagunak. Iazko bandera jaistearena oso polita izan zen: beste taldeek egin ziguten harrera, Sanjuandegitik abiatzean jendearen txaloak... Egundoko gogoarekin atera ginen, eta primeran pasatu genuen. Eta horixe da kontua, festaz gozatzea.

Bezperako danborrada herriko beste tokietara ere zabaltzearen ideia aspalditik dator. Ni [Merino] Sanjuandegiko taldean nenbilenean, 2005ean, danborradaren 50. urteurrena zela-eta grabatu genuen diskoaren garaian eta, egitea nahi genuen, Barratsuko jendea-eta tartean zela. Eta hori horrela zela ikusi da orain ere, danborradaren batzordean proposamena aurkeztu zenean.

Idea zen festa luzatzea eta herrian zabaltzea, eta gu behintzat erabat ados gaude horrekin. Politena izango zen erdiak hemen Sanjuandegitik irtetea eta beste erdiak kaletik. Baina, azkenean, hasierako proposamena erdizka bakarrik beteko da. Loiolatxokoak, Sanjuandegikoak eta gu aterako gara hemendik. Orduan, pauso osoa eman beharrean, pauso erdia eman dugula esan daiteke.

Baina uste dugu datorren urterako asmo hori borobilduz joango garela. Jende bati kostatu egiten zaiola ematen du, baina uste dugu pixkanaka joango direla ideiarekin bat egiten. Eman diezaigun jendeari plaza ez den beste toki batean ere danborrada ikusteko aukera.

Hasierako ordua atzeratzearena ere ideia egokia dela iruditzen zaigu; bestela, askotan, afaria eztarriko zuloan dugula eta presaka ibiltzen gara, hasierara ezin iritsita. Egia da umeentzat-eta igoal berandutu egingo dela, baina plazakoa ikusi eta etxeratzeko aukera ere hor dago, bukaera arte egon beharrik ere ez dago.



## OILAGORRA

||| Asier Lasa eta Alberto Jimenez.

“jende asko, igoal, plazakoa ikusi eta etxera erretiratuko da”

“Gogotsu gaude. Urte askoan beste talde batzuetatik irten izan gara, eta beti aipatzen genuen: ‘hi, ederra izango hukek ba, danborradako taldea ateratzea!’ 2010ean, gainera, soziedadeak 50 urte bete ditu sortu zela, eta beroan lau lagun elkartu eta antolatzen hasi ginen. 48 danborjole, bi kantinera, banderaduna eta zuzendaria aterako gara, 52 lagun,

guztira. Jantzia erabakitzerakoan, soziedade-arekin lotura bat izan behar zuela, garbi genuen. Bazkide batek proposatu zuen *tranperoz* jaztea. Garai bateko ehiztaria da, Kanada aldekoa. Danborrak, berriz, txapazkoak.

Danborrada beranduago hasteak arriskua ekar lezake. Gazteak, igoal ez, baina jende asko dago –edadekoa edo ume txikiak dituen– egun horretan danborrada ikustera irte dena kalera, eta plazakoa ikusi eta etxera erretiratuko dena. Talde askori entzun diegu afaria motz geratzen zaiela, eta korrika eta presaka ibiltzen direla. Azken finean, denek nahiago lukete danborrada tradizionala egitea. Baina, talde berri gehiago gaudenez, aldatetak egin beharra dago. Aditu ditugun bertsoiak adituta, erdibideko aukera egokia dela uste dugu. Gainera, ez da behin betiko aukera; aurtengoa probatuko da, eta ikusiko da datorren urtean horrela segitu edo ez”.



## ZULOZABAL

III Balta Etxeberria eta Txaro Larrañaga.

“Danborrada ikustera irtetzen den jendea nahikoa haserre dago”

“Danborradan irtetzen saiatzen ginen hirugarren aldian da aurtengoa. Baina, aurrekoetan

## II HELDUEN DANBORRADA

### PARTAIDETZA.

**Bost ez, lau.** San Sebastian bezperan bost danbor talde gehiago ziren irtetekoak; baina, gastadoreak ez dira osatu euren ateratzeko. Hori dela eta, datorren urterako, 2012rako, beraiantzako lekua gordetzeko eskatu zuten udaletxean, eta danborradako ordezkarien batzordean eskaera aztertu ondoren, baiezkoa erantzun diote.

### ALDAKETA NAGUSIAK.

**Irteera ordua.** Azken urteetan ohitura den bezala, 22:15ean, irten beharrean, 23:15ean irtengo du San Sebastian bezperako helduen danborradak; beraz, ordubete beranduago.

**Irteera tokia.** Aurreko urteetan, Errebalean, Jose Artetxe kalean eta Zelai Luzen biltzen ziren talde guztiak; gero, danborrada Olazko Amaren plaza aurretik hasten zen. Aurtengoa, talde gehiago direnez, Zelai Luzeko taldeen ilera hori miseriak aldera luzatuko da.

**Danborradaren ibilbidea.** Irten eta talde denak plazan bilduko dira, han bandera igo, ohiko piezak jo eta betiko kale buelta egingo dute, parrokiaren geldialdia eginez. Erdikaletik gora Plaza Txikira heldutakoan, talde bakoitzak bere bidea hartuko du.

**San Sebastian eguneko helduen danborrada.** Bandera jaisteko helduen danborrada indartzeko asmotan, San Sebastian eguneko helduen bi danbor talde gehiago irteera adostu dute danborradako ordezkarien batzordean. Beraz, lau talde irten beharrean seik irtengo dute bandera jaistean. Lehen bezalaxe, urtero taldeak txandatu joango dira.

ez genuen taldea osatzea lortu. Bazkideen bikoteak eta hasi ziren ‘benga, atera egin behar dugu’, berotzen. Biok hartu genuen antolatze ardura, eta iazko martxoan Udalean izena eman genuen, eta onartu gintuzten. Danborra jotzen 44 gara, neska eta mutil. Bi kantineran, banderaduna eta zuzendaria, umetxo batekin. Geure artean haserrik egon ez dadin, urtero txandatu joango da zuzendari-laguntzailea. Trajeari dagokionean, udaletxetik esan ziguten desfile militarreko jantziren bat izan behar zuela. Hiru bat aukera genituen, eta bilera batzuen ondoren, nahikoa erraz erabaki genuen Beefeater ginebra botilako soldadu horretaz jantzea. Londresko dorreko zaintzailea da. Soziedadeko bastante jende ibili da Ingalaterra aldean, eta ideia egokia iruditzen zitzaigun. Abrugoa eta belaunerainoko galtza gorria daramatzagu, media eta zapata beltzekin. Danborrak narruzkoak ditugu, eta oso gustura gaude.

Beno, egia esan, gure soziedadean, berez, ez da asko gustatu hainbeste aukera berri hori. Nahiago genuen lehengoan segitu. Baina, egia da, orain talde gehiagorekin ba, gauzak egokitu behar direla. Soluzio bat bilatu egin behar zitzaion, eta, igoal, onena ez da izango, baina hori denborarekin ikusiko da. Danborrole gehienak, iruditzen zaigu, gustura izango direla, afaltzeko denbora gehiago izango baita. Orain, danborrada ikustera irte den jendea nahikoa haserre ikusten da. Ikusteko-eta oso berandu da. 23:15ean hasten da eta umekin irtetzen duen jende horrentzat pixka bat berandu da. Beti esan izan da afaltzeko oso denbora justua izaten dela. Baina, zenbait talderi aditu diedanez, iazko orduan doaz afaltzera. Bazkide baten arreba konprometitu da afaria prestatzera, eta gu gustura.\*

arte eta diseinu ikastegia

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 58 08  
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA

aholkularitza  
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ORDULARI

Jose de Artebe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

haritz etxeberría 'ministro'



josu oiartzabal 'xenpelar'

# Zaharrak berri

**M**inistro. Kostata, baina 2010. urtean inauguratu genian Sanagustin e!

**Xenpelar.** Bai, moteil! Kostatu zaiek amaitzea.

**Ministro.** Inaugurazioa azpeitiarrena egin genian ba...

**Xenpelar.** Bai, handi xamarra izan huen; ez gaituk sekula aldatuko!

**Ministro.** Halere, denetatik onena Julian Eizmendi jaunaren diskurtsoa iruditu zitzai daan.

**Xenpelar.** Jakina! Ba, pentsa ezak garai batetik asko ikasita dagoela eta... Hortik atera kontuak, lehen nola hitz egingo zian!

**Ministro.** Bere alderdian ez al ziotek erakutsi, Madrilen eskerrak ematea onartuta dagoela, baina norbere herrian ("Euzkadin") beste diskurtso bat saldu behar duela!

**Xenpelar.** Martxa honetan jai garbia ditek aurtengo hauteskundeetan.

## 2011rako desioak

**Ministro.** 2011. urteari zer eskatzen diok?

**Xenpelar.** Betiko alperrikako promesak utzi dizkiat albo batera; erretzea uztearena eta. Aurten, ea behingoz euskal preso politiko eta iheslariak etxeratzen dizkiagun.

**Ministro.** Bai, hori duk! Amnistia lortzea hori ez zakiat... Baina, gutxienez, lehen pauso gisa Euskal Herrian egon beharra ditek, eta prozesu honen partaide izan.

**Xenpelar.** Dudarik gabe. Pattera, Gotzon, Jabi, Txapi, Xegu, Iker, Josu, Pakea, Etxarte, Artola eta beraien senide eta lagunei gure besarkada sutuena, eta animorik beroenak eman behar zizkieagu.

**Ministro.** Eta, egoera berdinean aurkitzen

**XENPELAR.** "Euskal preso politiko eta iheslariak ea behingoz etxeratzen ditugun"

**MINISTRO.** "Euskal Herrian egon beharra ditek; prozesu honen partaide izan"

diren beste guztiei ere bai. Aurtengo urtea izango duk azkena, beraien senideek eta lagunek hainbeste oztopo jasan behar dituztena, maite dituztenekin elkartzeko. Bestela, *apaga y vamonos!*


**Xenpelar.** Hori dena, hik esanda bezala ateratzen baduk, urte hau izango duk benetako urte "natuala".

**Ministro.** Ea ala izaten diagun ba! 2010. urte bukaera ere gogorra izan duk euskaldunontzat eta Euskal herriarentzat. Xabier Lete ere joan zaiguk. Ba, Benito Lertxundiri esan nahi zioat osasuntsu jarraitzeko, kantari mitiko asko galdu dizkiagu aspaldian eta.

**Xenpelar.** Egia. Ba, urte berri on Benitori eta beste denori!\*



# Zakukada ekitaldi

Kultur ekitaldiak baldintza txukunetan egiteko parada dago herrian, Sanagustin kulturguneak joan den abenduaren 11n ateak ireki zituenetik. Urtarrila ere gainezka dator.  Ainitze Agirrezabala

Ireki berri den Sanagustin kulturgunean estreineko kontzertua *Ze esatek!* taldeak eskaini zuen, joan den abenduaren 18an. Hil honen 8an, Ruper Ordorika igozen taula gainera, eta urtarrilaren 28an Bide Ertzean izango da.

Tolosako taldeak kaleratu berri duen *Don Inorrez* diska osatzera koan Jose Luis Otamendiren hainbat ekarpen erabili ditu. Besteak beste, Otamendiren *Atzo eta hondartzan* poemak musikatutuzte. Bada, Azpeitia eta Otamendirekin zerikusia duen zerbait: diskaren izena. Taldekideek *Berria* egunkariari honela azaldu zioten diskaren izenaren jatorria: "Otamendirekin lehen kolaborazioa egin genuenean dagoeneko aipatzen zigun Azpeitian umeei kargu hartzeko *Don Inorrez* kontzeptua erabiltzen dela.

## ||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Bide Ertzean taldearen kontzertua.

||| **Eguna.** Urtarrilak 28 (ostirala). ||| **Ordua.** 22:00

||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea.

||| **Antolatzailea.** Azpeitiko Kultur Mahaia.

Bestalde, hilaren 14an eta 28an Ta3. zineklubak antolatuta film bana eskainiko dute. Urtarrilaren 15ean, berriz, Tsene eta Paralux taldeek joko dute (19:00). Hilaren 22an, larunbatean, Ama Say eta Borrokan taldeak izango dira (22:30). Hilaren 26an, Imanol Lazkano bertsolariak hitzaldia emango du, (19:00), eta 30ean Ornitorrinkus kontzertu aurkezpena izango da (19:00).\*

## ||| BIDE ERTZEAN, 'DON INORREZ' |||||

**7** . **diskoa.** Bada, Azpeitia eta Jose Luis Otamendirekin zerikusia duen zerbait, diskaren izena: 'Don Inorrez'.

**3** **hilabete eta erdi biran.** Irailaren 28an aurkeztu zuten 'Don Inorrez' Donostian, eta geroztik kontzertuak eskainiz dabilta.\*



Donostiako Victoria Eugenia antzokian eskainitako kontzertua, joan den abenduaren 16an. ||| **Bide Ertzean**

## ||| BESTERIK |||||

### 1 Lagun Onak MBtik irteerak

Erlora egindako mendi irteerarekin hasi zuten urtea Lagun Onak MBkoek. Urtarrilerako, ordea, beste bi irteera ere antolatu dituzte. Hilaren 15ean Soroluzera, eta 30ean Azkoitira. ||| **Eguna.** Urtarrilak 15 eta 30 (larunbata eta igandea). ||| **Tokia.** Irteera Plaza Nagusitik. ||| **Antolatzailea.** Lagun Onak Mendi Bazkuna.

### 2 Danborradako entseguak

Urteko aurreneko festa nagusiak sansebastianak dira. San Sebastian bezperako helduen danborrada eta eguneko umeena dira festetako protagonistak. Danborradan irteteko, urtero bezala, entseguak egiten dituzte. Helduenak hilaren 11n, 13an eta 18an izango dira, 21:00etatik 22:00etara. Umeenak, berriz, 13an, 17an eta 18an, 16:00etatik 17:00etara. ||| **Tokia.** Izarraitz pilotalekua. ||| **Antolatzailea.** Udaleko Festa Batzordea.

### 3 Zezen festa familian

Txikientzako zezen txikiak eta poniak izango dira eguerditik aurrera. Arratsaldean, berriz, sokamuturra (16:30-20:00). ||| **Eguna.** Urtarrilak 23 (igandea). ||| **Tokia.** Herriko plaza. ||| **Antolatzailea.** Zezenbeltz Elkartea.\*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



# ONDO PASATU SANSEBASTIANAK

2014





## ||| SOLUZIOAK |||||

## HITZ GEZIDUNAK

V	I	O	T	O	K	●	V	T	K	V	●
K	V	B	V	B	●	V	N	●	V	B	V
U	T	R	R	R	E	B	E	R	E	A	●
T	●	T	●	V	N	E	P	●	E	R	E
●	N	I	K	Z	I	●	V	Z	V	●	●
V	A	M	V	●	K	V	R	I	R	I	V
K	V	R	V	Z	V	I	●	●	I	●	●
V	R	V	N	V	D	V	●	●	E	R	V
N	Z	P	O	G	V	A	●	●	E	R	V
●	●	I	●	E	●	●	●	●	E	●	●



## HITZ GURUTZATUAK

I	D	L	V	O	S	V	E	R	A	E
Z	●	V	L	V	V	F	V	A	D	V
V	R	E	V	J	●	K	I	K	I	K
R	V	R	S	E	I	B	A	I	B	A
V	T	T	●	V	K	A	R	K	A	R
N	V	L	●	V	G	A	K	A	R	K
I	●	I	R	I	R	I	Z	U	R	I
R	V	Z	T	I	S	●	L	S	V	A
V	A	R	E	P	T	O	E	R	A	E

## ||| ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urtarrilak 24 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardoak  
||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da  
||| ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

## ||| UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

## ZEIN DA?



## JULIAN EIZMENDI ALKATEA



## IRABAZLEA



Patxi Galarra Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 123. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Patxi Galarraga, saria eskuetan duela.

## ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od  
rioz  
ola

## Kuminoa-txarpoila

ITZIAR AGIRRE botikaria

**L**andare unbeliferoa da kuminoa, apioa, perre-xila eta mihilua bezala. Propietate asko ditu, eta, batez ere, haziak duen usainagatik asko erabiltzen da okindegian, gozogintzan eta sendakuntzan.

Beste landare asko bezala, Asia hurbiletik edo ingurutik dator. Horregatik, eta beste hainbat arrazoi-gatik pentsatzen dut 'paradisua' lurralde haietan egon zela.

Duela 6.000 urte ezaguna zen kuminoa, eta, dirudenez, garai haietan landare honekin egindako enplastuak zirkunzioa egin ondoren, infekzioa saihesteko erabiltzen ziren.

Meloi itxurakoak diren hazi txikiak ditu zatirik eraginkorra. Landarearen adar muturrean kokatzen dira, eta uda garaiko fruitua da.

Kuminoak dohai ugari dituela esan izan da, baina nik gutxitan sinesten dut: liseriketari laguntzen dio, hesteetako haizeak gutxituz. Artikulazioetako haizeak suntsitzen dituela ez dut sinesten. Eraginkorra izan daiteke sabeleko handitze sentazioa kentzeko eta baita hesteetako tentsio gogaikarria arintzeko ere, arropak edo gerrikoak estutzen duenean.

Zenbait lurraldetan, dena sendatzen duen landare horietako bat da, baina egia esan, eginkizun nagusia barazkiak eta haragia asimilatzen laguntzea da.\*

||||||| **Julian bereziartua** |||||



### 1. Medikuen letra ulertzen al duzue?

Bai, oso erraz.

### 2. Guardiak egitea gogorra al da?

Pixka bat bai; lotan gaude.

### 3. Birziklatzen al ditu jendeak botikak?

Asko, kontzientziatu gara.

### 4. Hurrengo eguneko pilula...

Ez da egoki erabiltzen.

Festetan, 14 urteko neska koskor asko etortzen da.

### 5. Mitoa da kondoiak erosteaz lotsatzea?

Lehen bai lotsatu; normal-normal erosten dira, orain.

### 6. Gehien saltzen den antisorgailu mota?

Baginako aroa.

### 7. Generikoa edo...

Generikoak errezetazera behartu dituzte medikuak.

### 8. Egungo penizilina...

Spidifen edo Ibuprofeno.\*

📍 Ainitze Agirrezabala

Eman zure negozioaren berrir Azpeitiko Gidan!

# azpeitiko




HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA





## |||BLOGAK / ARGAZKIA|||||||



## ▲ARTELATZA.

Artelatza entzutean gehienoi burua Extremadurara edo Portugalera joaten zaigu. Baina, harritzekoa bada ere, hemen inguruan baditugu artelatx basotxo politak, Meaga eta Garate gainean, eta hemendik Zarauzko Santa Barbara bitartean. |||||**juan joxe agirre**|||

## |||EFEMERIDEAK|||||||

1681

**Karnabal iganderako zezenketa.** Herritarren gozamenerako, hala erabaki zuten agintariek. Astelehenean, herriko harakinak idizko bat ibili behar izan zuen kaleetan, eta asteartean sei bigantxa.\*

🍷 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.  
 |||Egilea: Imanol Elias Odriozola.  
 |||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

## |||INKESTA|||

**Nork ekartzen dizkizu Gabonetan opariak?**

**Inork ez.** %25,18.

**Olentzerok.** %19,42.

**Erregeek.** %28,06.

**Biek.** %27,34.

|||**Oraingoa.** Erosketak herrian ala kanpoan?

**www.uztarria.com**  
 azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak  
 |||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,  
 hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;  
 PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



# Dotorea, goitik behera

Makina bat emakume apain jartzen gogotik lan egin dute Inaxitaren eskuek, urteetan. 🖋️👁️ Ainitze Agirrezabala

**P**ertxenta hutsa da; apain jantzita, eta gustu handiz orraztuta eta maki-llatuta. "Oso pinpirina naiz, beti izan naiz horrela, txikitan ere bai. Goizean jaiki eta egiten dudan aurreneko gauza, aurpegia garbitu eta ezpainak pintatzea da. Hori sakratua dut. Bizi-indarra ematen dit horrek". 91 urte handi baditu ere, begiratu hutsean ikusten da oraindik ere emakume lerdena dagoela, burutik oinetara. Santa Lutzi Egunean Etxaun-Txoko baserriko goxotasunean hartu zuen Uztarría Inaxita Arozenak (Zestoa, 19XX).

Jaiotzez zestoarra da, Gexala baserrikoa. Gurasoak Inazio eta Josefa, eta lau ahizpetan bera gazteena. "Ni jaiotzerako hil zen aita, gaixotuta. Ama zortzi hilabeteko esperoan zegoela alargundu zen". Aitaren omenez jarri zioten alabari izena, Inaxi. "Aitari Inaxio *Txin-txarri* deitzen zioten. Loiolako Arrupe etxean jaio zen, ostatuan. Zaldizaina zen. Txintxarriekin apainduta zaldi dotoreak zituen, eta ostatuko bezeroak batetik bestera gurdian eramateaz arduratzen zen. Gero, Zestoako Arozena hotelean aritu zen lan berean".

Alargunduta, lau alabekin Azpeitira bizitzera etorri, eta ile-apaindegia zabaldu zuen Inaxitaren amak. "Bergaran ikasi zuen ofizioa.

Azpeitiko lehenengo *peinadora* zen, orduan hala deitzen zitzaion". Inaxitak eskolarako baino ile-apaindegirako gogo handiagoa zuela kontatu du: "Miserikordian ikasi nuen, 12 urtera arte edo. Matematiketan *sumar, restar, multiplicar* eta *dividir* bai, ikasi nituen; baina, *regla de tres* egiten ikastera ez nintzen ailegatu". Ikasketa handirik ez bazuen ere, bizitza bera izan da Inaxitarentzat unibertsitate-rik onena. Harrezkero, eguneroko ogia lortzeko lanean, tratulari gogorra izan da.

## Afizioa, neska koskorretatik

Hamaika urterako "*tenazillak* edo kizkurgailua ederki maneiatzen" zuela ondo gogoan du Arozenak: "Gure ama oso ona zen horretan, eta ni haren ondotik ez nintzen apartatu ere egiten. Burnizkoak ziren, sutan goritu eta ilea erretzeko moduan egiten genituen kiribilak. Gogoan dut, komunio egunean, jaunartzea egin behar zuten umeak orraztu nituela aurrena, neroni gero, eta hala joan ginen". Inaxitak kontatzen duenez, bera baino lehen ahizpa zaharrena aritu zen ile-apaindegian, amaren ondoan, lanean; baina, harek "behin ere ez zuen afiziorik" eduki, eta "berehalaxe utzi" zuen.



Inaxitaren esanetan, gaztetxoia zela "nobedadea" izan zen permanentea egiteko asma-tu zen modua. "Elektrizitatearekin funtzionatzen zuen. Bola handi bat zen, eta hura buruan sartuta egon behar izaten zen. Bigudiak bezala zituen, eta ilea haietan biltzen zen. Burua asko bustitzeko eskatzen zuten bezeroek, eta batzuei buru azala erre eta anpoilak ateratzen zitzaizkien. Garai hartako emakume askok burusoiltasunak dituzte. Tolosan, behin, emakume bat hil ere egin zen".

Ama erretiratu, eta hamasei urterako bere kontura hasi zen lanean. "Parrokia aurreko etxean, lehenengo pisuan, izan nuen nire aurreneko ile-apaindegia. Alokairuan bizi ginen, eta ahizpak jostundegia ere bertan zeukan". Geroztik, urte mordoia Erdikalean egin zituen; eta, gero, Done Jakue kalera pasatu ziren. "Emakumea isilik ez da egoten, eta izaten zen han txutxumutxua, saltsa eta kontua.



Inaxita Arozena Izeta, Etxaun-Txoko baserriko egongelan, beheko-suaren ondoko sofán eserita.

Herriko kontu asko izaten genuen, eta berde xamarrak baziren, kontentu". Bere ile-apaindegian jendea orrazteaz gain, bezeroen etxe-etara ere joaten zen Inaxita: "Baserritarrekin oso ondo konpontzen nintzen. Ezkontzaren bat zutenean, orraztu bakarrik ez, goitik behera jazten nituen, eta bitxiak eta uzten nizkien, guapa joan zitezten. Trukean baserriko produktuak ematen zizkidaten".

### Senargaiarekin 'kezkak'

Garai hartarako berandu ezkondu zen Inaxita, 29 urterekin. "Nire lehenengo ezkongaila nafarra zen, eta zazpi-zortzi urtean ibili nintzen harekin. Maisua zen, eta ni bizitzera Nafarroara joatea nahi zuen. Baina, nik ez nuen ile-apaindegia, ama eta ahizpak utzi eta hara joaterik. Orduan, laga egin ninduen, moja sartzeko esanda".

## Pasadizo ugari

|||Pentsioa kobratzen herriko lehen ile-apaintzailea dela kontatu du Inaxitak. "Ustekabeko ikuskapen batek zerga ordaindu gabe harrapatu ninduen, eta harrezkero, xuxen ordaindu behar izateak jubilatutako ondorengo paga jasotzeko aukera eman zidan. Orduan loa kendu zidan lanak; eta, orain, lo egitea ere kobratu egiten dut".

Beste behin, hurrengo egunean Zestoara festara joan nahi zuten bi neska gazte etorri zitzaizkiola dio. "Tenazillekin guapa jarri nituen, baina hurrengo egunerako edertasun hura galtzen ezin zela utzi, eta oheratu gabe, etxean gaupasa egin zuten. Lorik egin gabe 06:00etarako mezatara joan ziren, baina txorabiatu eta Zestoara joan beharrean ohean pasatu zuten eguna".



**1.** Gaztetan. Ile-apaindegiko erakusleihoan argazki hau dute jarrita. **2.** Inaxita amaren magalean, hiru ahizpak, eta aita zenaren argazkia. **3.** Zortzi seme-alabekin, Kiruri jatetxean.



Lehenengo harreman hartatik lorerik jaio ez bazen ere, ez zen senargairik gabe geratu Inaxita: "Aspalditik ezagutzen nuen Migel Bezeziartua, tallista eta musikaria zen, eta Pilotalekuan egiten zuen lana. Iloba batek etxeko atea puskatu, eta hura konpontzera etortzeko deitu genion. Hala sortu zen gure artekoa". 26 urterekin elkarrekin hasi, eta 29rekin ezkondu ziren: "Ezkontzerako egongela ederra egin zuen berak". Nobiotan, ordea, "kezkarik" izan zuela dio: "Loiolako geltokian paseatzen genbiltzala, hari begira, pentsatzen nuen, 'musuluzea duk bada, haxe!'. Baina, harekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen. "Bularrarekin hazi nituen denak. Han ibiltzen ziren ile-apaindegian bueltaka".

Gaur egun ere, batasun handiko familia dira. "Ostiralero patata-tortilla jateko biltzen naiz seme-alabekin nire etxean".✱

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

## FARMAZIAK (URTARRILA)

### EGUNEZ

1-5-8-9-13-18-26-31	2-7-12-17-22-23-27	3-14-19-24-29-30	4-6-10-15-16-21-25-28	11-20
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811949	943 815974	943 811274	943 080258	943 811350

### GAUEZ

3-4-5-6-7-8-9-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28-29-30	1-10-15-16	2-14	11-12-31
Alberdi (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 815974	943 852989	943 850660	943 851235

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

--ren ??an izango dute hitzordua, ??tik??ra, ambulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelhehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ TRASTEEN BILKETA.

Traste zaharren bilketari dagokionean, ostiral goizean aurreneko orduan, 07:00ak aldera, jasotzen dituzte. Beraz, egokiena da, trasteak ostegunean, 21:00ak-22:00ak aldera ateratzea.

## CARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak

13	Ruiz (Azkoitia).
943 851966	

# URRITZ IRURETAGOIENA

Londres

“Hemen, zerbait egiteko bilatu egin behar dun jendea”

Unibertsitateko ikasketak bukatuta, ingelesa ikastera joan zen Londresera, iazko otsailean. 📎 **Julene Frantzesena**

**N**olatan hago Londresen?

Otsailean etorri nindunan, Karnabalak pasatutakoan. Ingelesa ikasteko asmotan etorri nindunan, eta bide batez kurrikuluma betetzera. Euskal Herrian lan aukera gutxi zagon orain, eta kanpora irtetzea erabaki ninan.

**Zer moduz moldatu haiz horra?**

Hasieran gaizki pasatu ninan. Ingelese ia ideiarik ez ninan. Milaka pertsona gurutzatzen nizkinan kalean, baina ezagunik ez. Handiegia egiten zitzaidanan. Orain, hobeto nagon. Gehienekin komunikatzeko arazorik ez dinat, nahiz eta ingeles itxian hitz egiten dutenei ulertzea gehiago kostatu.

**Zerk harritu hau gehien?**

Horrenbeste jende ikusi eta inor ez ezagutzeak. Izugarrizko mugimendua egoten dun kalean, baina pertsona bera bi aldiz ez dinat gurutzatu. Bestalde, joan aurretik euri asko egiten zuela entzun arren, Euskal Herrian baino askoz ere euri gutxiago egiten din.

**Nolakoa duk Londres, eta jendea?**

Mundu guztiko jendea zagon. Ingelesak desatseginak direla esaten ditun, eta halaxe dun. Futbolarekin zoratu egiten ditun, zoro-

etxeak ematen ditun pub-ek partida eguntan. Halere, ingelesekin baino tratu handiagoa dinat Italiako, Europa Ekialdeko, Espainiako... jendearekin.

**Euskaldunik bilatu al duk hor?**

Bai. Pisuan hiru euskaldun gauden. Euskal Etxean ekintzak antolatzen ditizten: bertso saioak, musa, txalaparta ikastaroa..., eta han ere euskaldunak elkartzen ditun. Azken mus txapelketan azpeitiar batek irabazi zinan. Ni ez naun asko joaten lanagatik. Euskaldunak ezagutu ditinat, baina ez Euskal Etxean.

**Azpeititik zer botatzen duk faltan?**

Euskal Herriko festak. Abuztuan sufritu egin ninan, *Facebook*-en lagunen argazkiak ikusita. Faltan botatzen dinat kalera irten eta norbaitekin elkartzea ere. Hemen, zerbait egiteko jendea bilatu egin behar dun.

**Londresko gauza on eta txar bana?**

Ona, jende desberdina ezagutzeko aukera ematen duela. Txarrak, berriz, asko: Jende gehiegi ibiltzen dun kalean. Edozein lekutara joateko denbora behar dun: auto-ilarak... Udako eguraldia ere ez zaidan gustatzen, beti lainotuta egoten dun-eta.✘



1

1. Lana egiten duen jatetxeko terrazan. 2. Jokin Uranga eta Amets Arzallusek Londresko Euskal-Etxean abestu zuten eguneko argazkia. 3. Candem Town azokan.



2



3

# Berdin ezberdinak

**E**z nuen nire benetako izena inork irakurriko zuen paperetan agerterik nahi eta izen mordoa eman nizkion aukeran. Andreia, Luz, Renata, Marta, Gabriela, Maria, Carolina, Larissa... izen guztiak nintzela, edo izan nintekeela, adierazi nion. "Horiek denak izan litezke nire izenak", hitzez hitz. Horixe esan nion lehenengo, nahiz eta aukeraketan lagundu ere egin nion gero. Eman dezagun, hauxe adierazi nion, lanbro artean argi: "Oraintxe jokutzen ari den 20 urtez azpiko Emakumezkoen Futboleko Mundu Txapelketan Brasilentzat lehenengo gola sartu duen jokalaria izena dut". Kasu honetan, "oraintxe"-k 2008ko azaroa esan nahi zuen. Izerdia lagun, jakingo zuen nire izena, benetakoa...

Ez nuen zalantzarik izan jaiotegunaren inguruan galdezka hasi zitzaizkidan. 1976ko abenduaren 4an jaioa naiz, nahiz eta agiriak 1977koa naizela esaten duten... Aitaren okerra izan zen. Umeak jaiotzen direnean, erregistratu egin behar izaten dira, eta ordaindu. Baina gure aitak egun haietan dirurik ez, eta ezin nire izenik erregistroan eman! Erregistratu nindueneko, urtarrilaren 27a zen, baina komeriak orduan ere! Ezin esan abenduaren 4koa nintzela, denbora handia joana izango zelako ordurako, hau da, jaiotzenetik erregistroan nire izena eman zuten bitartean, eta isuna ordainaraziko ziotelako; berandutzeagatik, alegia. Diote, gainera, urtarrilaren 27 hartan ni erregistratzera joan zenean gure aita, brixbolinduta joan zela, eta hilaren 20an jaioa nintzela besterik ez zitzaiola burura etorri". Horrela ageri da harrezkero nire paper eta agiri ofizial guztietan: 1977ko urtarrilaren 20an jaioa! Baina okerra da hori. Ezinezkoa. Ahizpa bat ere badut urte hartan bertan jaioa, 1977an, eta haren izena zuzen erregistratu zuen gure aitak. Beharko!

Dozena erdi daramatzat Euskal Herrian, lanean eta paper borrokan. Erresidentzia-baimena, lehenengo, eta ondoko zerrenda han-




■■■■■■■■■■ **miel a. elustondo** ■■■■■■■■■■

■■■ Bera esnea baino zuriagoa da. Ni, aldiz, ikatza baino beltzagoa. Bistan da berdin ezberdinak garelako...

dia gero. Etxebizitza alokatzea dut oraingo helburua eta udalaren zerbitzuko gizarte langileak aurrezki-kutxak duen etxebizitza zerbitzuaren berri eman dit. Kontu korrantea ireki behar dut horretarako. Kutxara joan eta direnak eta ez direnak eskatu dizkirate: pasaportea, erresidentzia-baimena, lan baimena, errolda agiria, lan kontratua, orain bizi naizen etxeko errenta agiria, nomina, gutxieneko diru kantitate bat –600 euro, alajainetan!–, kontuan sartzeko... Dozena erdi urte honetan lagunak ere egin ditut zuen artean eta haietako bati komentatu nion ditxosozko kontu korrantearena eta, ez si eta ez no, kutxara joan zen kontua irekitzera. Nortasun agiria, errolda agiria, eta diru sarreraren baten egiaztagarria –nomina, alegia–, eskatu zizkieten. Mila deaburuen gorria, niri eskatutakoen erdirik ere ez!

## Desberdintasuna kolorean

Bera esnea baino zuriagoa da. Ni, aldiz, ikatza baino beltzagoa. Horregatik ote? Berdinak ginelakoan nengoen, baina bistan da berdin ezberdinak garelako...\*



iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

‘zure irribarra zaintzen dugu’

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)

# heldu uztarriaren amuari



Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure eragin  
egin. Oso erraza da.

izen-abizenak:

helbidea:

enहा edo nan zenbakia:

telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia  
e-posta: [uztarria@uztarria.com](mailto:uztarria@uztarria.com) • telefonoa: 943150358

**uztarria**  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA




eskaintza ezin hobek  
zure aurrezkiak salbu  
dira gurean



## ACER ASPIRE 5736

- Intel Pentium T4500, 2.30GHZ
- RAM Memoria 4GB DDR3
- Disko gogorra: 320 GB
- DVDRW txartel irakurlea
- Windows 7 Home Premium. 64-BIT
- Pantaila: TFT 15.6" + webcam

**499 euro**  
b.e.z. barne



Santi Lazkano Kirolak

negua 2011  
**%30eko merkealdia**

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

